



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2020ko EKAINAREN 30ean EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2020ko ekainaren 30ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Unai Sorarrain Urruzola
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen du: Shrabani Aranzabe Pita, Concepcion Soria Legua eta Guillermo Jesus Otegi Zubillaga

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Aurreko bilkurako aktan onespena.**
✓ **2020ko ekainaren 16an egindako ez ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2019ko kontu orokorraren behin betiko onespena, hala bada**
- 5. Alkizako Errekalde inguruan dagoen zabor puntuaren egokitze lanen esleipena, hala bada.**
- 6. Deustuko unibertsitatea eta Alkizako udalaren arteko datuen tratamenduaren arduradunen arteko kontratuaren onespena, Alkizako herrian praktikatuko ikasle bat izateko.**
- 7. Udal langilearen opor egutegiaren onespena, hala bada.**
- 8. Alkizako Hosteleriei covid19-aren ondorioz izandako kalteei aurre egiteko udalak ateratako kontsumo bonoen onespena, hala bada.**
- 9. Don Juanena etxeko bigarren solairuko udal apartamentua alokairuan esleitzea, hala bada.**
- 10. Beste batzuk.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

11. Mozioak, erreguak eta galderak.

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA

- 2020ko ekainaren 16ko ez ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 70/2020tik 75/2020ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

ITURRALDE INDUSTRIAGAIK	56,99
EBA ERKIZIA	2.242,67
ARGITU	166,11
IBERDROLA	23,05
URAK SOLUCIONES TECNICAS AL AGUA	10,89
ACSOL	74,26
ACSOL	59,05
ACSOL	75,41
ACSOL	40,56
ACSOL	42,76
ACSOL	21,28
MOVISTAR	179,08
MOVISTAR	55,30
SOLRED	47,25
EXCAVACIONES LORTU	1.331,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

RECAMBIOS IBARRA	11,83
SEIKIN	42,35
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	138,57
CORREOS	3,61
ACSOL	143,77
EGIMENDI	8,01
CALDERERIA ABURUZA	338,80
FUNDIBIDE	231,58
FUNDIBIDE	130,68
RECAMBIOS IBARRA	68,49
FUNDIBIDE	65,50
NORTEGAS	6,84
NORTEGAS	44,26
NORTEGAS	89,18
IZFE	1.975,83
DIMARPE	144,74
EUSKALTEL	151,42
CALPARSORO INDUSTRIAL	108,16
ACSOL	500,42
ACSOL	111,13
ACSOL	16,43
ACSOL	13,79
ACSOL	10,94
ACSOL	7,61
ACSOL	8,86
ACSOL	7,71
GILDER INGENIEROS	3.267,00

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **12.073,17** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

2019KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuari



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

buruzkoak, 62 eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituz, Kontu Orokorra egin dela, ekitaldiko aurrekontuari buruzkoa, aparteko aurrekontuari nahiz ondasunei eta diruzaintzari buruzko operazio guztien adierazgarri dena. Kontuetako Batzorde Bereziaren txostena lortu ondoren, jendaurrean egoteko tramitean jarri dela, 2020 urteko ekainaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz, erreklamaziorik, konponbiderik edo oharpenik aurkeztu ez delarik.

Ikusirik espediente osoa Udalbatzarraren ezagupenean jarri dela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Udalbatzarreko Lehendakariak emandako 2019 ekitaldiko Kontu Orokorra onestea.

BIGARRENA.- 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorraren espedientearen berri Kontuetako Hauzitegiari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

ALKIZAKO ERREKALDE INGURUAN DAGOEN ZABOR PUNTUAREN EGOKITZE LANEN ESLEIPENA, HALA BADA

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du Errekalde inguruan dagoen zabor puntuan egokitze lanak egiteko kontratua esleitzea.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Ikusirik lan hauek egiteko hiru aurrekontu eskatu direla: OSTARBI ERAIKUNTZAK & ZERBITZUAK, LAU HAIZETARA S.L. eta GARRO CONSTRUCCIONES ERAIKUNTZA enpresei.

Aipaturiko aurrekontuak azterturik, OSTARBI ERAIKUNTZAK & ZERBITZUAK enpresarena, kontzeptu guztiak kontutan izanik merkeena dela aurrikusten da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. Obra kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Obra kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 40.000,00€ azpitik dagoelako.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: OSTARBI ERAIKUNTZAK & ZERBITZUAK *enpresari*, Errekalde inguruan dagoen zabor puntuan egokitze lanak egiteko kontratua esleitzea 2.320,08€-tako diru kopuruan (BEZ kanpo). Ordainketa 625.162.10.01 kontu sailaren kontura egingo da.

SEIGARREN PUNTUA

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA ETA ALKIZAKO UDALAREN ARTEKO DATUEN TRATAMENDUAREN ARDURADUNEN ARTEKO KONTRATUAREN ONESPENA, ALKIZAKO HERRIAN PRAKTIKETAKO IKASLE BAT IZATEKO

Ikusita Alkizako Kabia gunea irekitzeko asmoa duela Alkizako Udalak, Plazan kokatua dagoen lokal batean.

Ikusita Alkizako Kabia gunea irekita izateko pertsona baten laguntza behar dela, Alkizako Udalak Deustuko unibertsitatearekin harremanetan jarri da bekadun pertsona bat Alkizan izateko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Deustuko unibertsitatea eta Alkizako udalaren arteko datuen tratamenduaren arduradunen arteko kontratuaren onespena, Alkizako herrian praktiketako ikasle bat izateko.

BIGARRENA: Deustuko unibertsitatearen eta Alkizako udala entitatearen arteko hezkuntzako lankidetzaren hitzarmenaren onespena, Alkizako herrian praktiketako ikasle bat izateko.

HIRUGARRENA: Alkate-Lehendakaria den Inaki Irazabalbeitia Fernandez jauna ahalmenu, aipaturiko kontratua eta hitzarmena sinatzeko.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ZAZPIGARREN PUNTUA
UDAL LANGILEAREN OPOR EGUTEGIEN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Udal langileek aurkeztu dutuztela 2020 urterako lan eta opor egutegiak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udal langileek aurkezturiko 2020 urterako opor egutegiaren onespena.

ZORTZIGARREN PUNTUA
ALKIZAKO HOSTELERIEI COVID-19-AREN ONDORIOZ IZANDAKO KALTEEI AURRE EGITEKO UDALAK ATERATAKO KONTSUMO BONOEN ONESPENA, HALA BADA

Ikusita Covid-19aren alarma egoerak eragindako krisia dela eta, Alkizako Udalak festak bertan behera uztea erabaki duela.

Aipaturiko krisiak herrian dauden eragileei ere kalte handiak eragin dizkio, horregatik, Alkizako udalak, herritarrei eta herriko eragileei laguntza bat eman nahi izan die.

Esandakoa kontutan izanik, Alkizako udalak asmoa du, herritarren artean, hau da, 18 urte goragokoei 10 euroko 2 bono banatzea, bata, Inazio Urruzola Txakolindegian eta bestea, Herri Ostatuan erabiltzeko. Udalaren asmoa da, herritarrei festak kendu zaienez, hauei sari moduan bono hauek ematea, eta ostalariei krisiak eragindako galerei aurre egiten laguntzea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 18 urte goragoko herritarrei, 10 euroko bono bat ematea Inazio Urruzola Txakolindegian erabiltzeko. Bono honen iraupena 2020ko abenduaren 31 arte izango da.

BIGARRENA: 18 urte goragoko herritarrei, 10 euroko bono bat ematea Alkizako herri ostatuan erabiltzeko. Bono honen iraupena 2020ko



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

abenduaren 31 arte izango da.

HIRUGARRENA: Bono hauek suposatzen duten gastua onestea, urte bukaeran hauen kitapena egingo delarik.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

DON JUANENA ETXEKO BIGARREN SOLAIRUKO UDAL APARTEMANTUA ALOKAIKUAN EMATEKO ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik 2020ko maiatzaren 26an egindako Udalbatzarrean Don Juanena etxeke bigarren solairuko udal apartamentua alokairuan esleitzeko dagokion deialdia eta oinarriak onestu zirela.

Ikusita, izena emateko garaian bi eskaera egon zirela: V.M eta L.I.M.

Ikusita, oinarrietan jasotzen ziren baldintzak eta adjudikazioa egiteko puntuak, puntuaketa altuena lortu duena V.M. jauna izan dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Don Juanena etxeke bigarren solairuko udal apartamentua V.M. jaunari, alokairuan esleitzea, hilean 350.-euro ordaindu beharko dituelarik.

BIGARRENGOA.- Don Juanena etxeke bigarren solairuko udal apartamentua V.M. jaunari, alokairuan esleitzea, bere iraupena 3 urtetakoa izango delarik.

HIRUGARRENA: V.M. jaunari jakinarazi, Udalak prestatutako kontratua sinatu beharko duela. Udalaren izenean, Alkateak sinatzeko baimena ematen delarik

LAUGARRENA- Akordio hauen berri interesdunari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

10.1.ALKIZAKO PLAZAN KOKATUA DAGOEN LOKALAREN ERRENTAMENDUA.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusita Alkizako udalak asmoa duela Alkizako Kabia gunea irekitzeko, horretarako oso egokia, plazan hutsik gelditu den E.B. andrearen lokala da.

Ikusirik, Alkizako kabia gunea irekitzeko lokalik egokiena eta baldintza guztiak betetzen dituen, E.B. andrearena dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: E.B.andreak plazan duen merkataritza lokala errentamenduan hartzea. Hilean 250,00eurotako diru-kopurua ordaindu beharko duelarik Alkizako Udalak. Errentamendua uztailearen leian hasiko da eta urte beteko iraupena du, bi alderdien adostasunarekin epe hau luzatu daitekeelarik.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakari jauna, ahalmenu dagokion lokalaren errentamenduaren kontratua sinatzeko.

HIRUGARRENA: Aipaturiko errentamenduak suposatzen dituen gastuak onestea.

10.2. DESFIBRILADORE AUTOMATIKOAREN MANTENTZE-KONTRATUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du desfibriladore automatikoaren mantentze kontratua esleitzea.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Ikusirik lan hauek egiteko BEXEN CARDIO enpresari eskatu zaiola aurrekontu bat.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberak kontratu txiki baten aurrean gaude. *Zerbitzu* kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: BEXEN CARDIO *enpresari*, desfibriladore automatikoaren mantentze kontratua esleitzea 221,28€-tako diru kopuruan (BEZ kanpo). Ordainketa 212.311.00.01 kontu sailaren kontura egingo da.

HAMAIKAGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.40 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

IDAZKARIAK